LAUDIO
UDALA
AYUNTAMIENTO
DE LLODIO

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

BALDINTZA JURIDIKO, EKONOMIKO ETA ADMINISTRATIBOEN AGIRIA, IZENBURUAN AGERI DEN ZERBITZUAREN KONTRATUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ, URGENTZIAZ IZAPIDETUTA ETA ADJUDIKAZIO-IRIZPIDE DESBERDINAK APLIKATUTA ADJUDIKATZEKOA

LAUDIOKO UDAL-TAILER KULTURALAK ANTOLATZEKO ZERBITZUA

(2023-63-S218-Kul)

LAUDIO
UDALA
AYUNTAMIENTO
DE LLODIO

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

AURKIBIDEA

Karatula 4
1. klausula KONTRATUAREN OBJEKTUA: 12
2. klausula ZERBITZUA EMATEA 12
3. klausula ADJUDIKAZIO-PROZEDURA ETA -FORMA 12
4. klausula KONTRATUAREN PREZIOA, FINANTZIAZIOA ETA ORDAINTZEKO ERA ... 12
5. klausula PROPOSAMENAK 13
6. klausula PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA, EPEA ETA FORMA 13
- Lekua 13
- Epea 13
- Forma 13
«A» gutun-azala: kontratatzeko gaitasuna. 14
«B» gutun-azala: balioespena eskatzen duten irizpideak 14
«C» gutun-azala: eskaintza ekonomikoa 14
Posta bidezko proposamenak 15
7. klausula PROPOSAMENAK ZABALTZEA 15
8. klausula ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK 20
9. klausula ADJUDIKAZIOA 20
10. klausula BEHIN BETIKO BERMEA ETA BERME OSAGARRIA ERATZEA 21
11. klausula EKONOMIA JARDUEREN GAINEKO ZERGA 21
12. klausula KONTRATUA FORMALIZATZEA 21
13. klausula KONTRATUA BETEARAZTEA 22
14. klausula ADMINISTRAZIOAREN ETA ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN ARTEKO HARREMANAK 22
15. klausula ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK 23
16. klausula PREZIOA ORDAINTZEA 28
17. klausula ARRISKUA ETA MENTURA LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA 28
18. klausula ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK 29
19. klausula KONTRATUA SUNTSIARAZTEA 30
20. klausula KONTRATUAREN IRAUPENA ETA LUZAPENAK 30
21. klausula BERMEAREN EPEA ETA BERMEA ITZULTZEA 30
22. klausula ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK 31
23. klausula KONTRATUAREN IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUMENDUNA 31
24. klausula KONFIDENTZIALTASUN-HITZARMENA 32
25. klausula IZAERA PERTSONALEKO DATUEN TRATAMENDUA 32
1. ERANSKINA ..... DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EREDUA (A GUTUN-AZALA) 34
2. ERANSKINA AUTOMATIKOKI KUANTIFIKAGARRIA EZ DEN ESKAINTZARAKO EREDUA (B

LAUDIO
UDALA
AYUNTAMIENTO
DE LLODIO

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

GUTUN-AZALA) 37
3. ERANSKINAESKAINTZA AUTOMATIKOKI KUANTIFIKAGARRIRAKO EREDUA (C GUTUN-AZALA) 39
4. ERANSKINA .....KONTRATAZIO-IRIZPIDEAK 42
5. ERANSKINA ..LANGILEEN SUBROGAZIOA ONARTZEKO EREDUA (A GUTUN-AZALA) 45
6. ERANSKINA ..... DATUEN BABESARI BURUZKO ARAUDIA (A GUTUN-AZALA) 46
7. ERANSKINA ..... LANGILEEN ZERRENDA 53

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

LAUDIOKO UDAL-TAILER KULTURALAK ANTOLATZEKO ZERBITZUAREN KONTRATU PRIBATUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ETA URGENTZIAZ IZAPIDETUTA ADJUDIKATZEKO KLAUSULA EKONOMIKO ETA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA

0 Puntua: **ESPEDIENTEA ABIARAZI DUEN ARLOA. –** Kultura Garapenerako Arloa. Kultura, Kirola eta Jaiak Zerbitzua.

1. puntua: **KONTRATUAREN OBJEKTUA:** – Kontratazio honen objektua da *«2023-2024 IKASTURTEAN LAUDIOKO UDAL TAILER KULTURALAK ANTOLATZEKO ZERBITZUA»* ematea, baita 2024-2025 ikasturterako luzapena ere. Baldintza teknikoen agirian azaltzen dira nondik norako guztiak. Horren bidez, Laudio Udalak kultura- zein jolas-jardueren egitasmo bat eskaini nahi die adin guztietako herritarrei.

Aurrekoaz gain, hauek ere badira udal-tailer kulturalak antolatzeko zerbitzuaren kontratazioaren objektuak:

- Euskararen presentzia eta erabilera sustatzea Laudioko herritarren kultura-, jolas-nahiz gizarte-jardueretan, eta, bereziki, Laudioko pertsona euskaldunen eta umeen kasuan.
- Balore-hezkuntzan nahiz kultura-dibertsitatean oinarritutako aisialdi osasungarria sustatzea.
- Belaunaldi ezberdinetako laudioarren arteko harremanak sustatzea, alde batera utzita ikastetxe, kultura-elkarte edota kirol-klubetako partaidetza.
- Emakumeen eta kolektibo zaurgarrien presentzia parekidea, ahalduntzea eta gizarte-partaidetza erraztea, arreta berezia jarrita dibertsitate funtzionala duten pertsonengan.

9/2017 SPKL-aren 17. eta 25. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, zerbitzu-kontratu administratibotzat hartu behar da kontratu hau.

2. puntua: **KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA**. - Kontratuaren hasierako iraupena urte batekoa (1) izango da, eta esanbidez luzatu ahalko da beste urtebetez (1). Jarraian jasoa dator lote bakoitzerako urteko aurrekontuen banakatzea, agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian zehaztutako zerbitzu-orduak kontuan hartuta.

Laudioko udal-tailer kulturalak antolatzeko zerbitzua:

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

URTEA	OINARRIA	%21eko BEZ	GUZTIRA
1. urtealdia (2023-2024)	61.274,26 €	12.867,60 €	74.141,86 €
1. luzapena (2024-2025)	61.274,26 €	12.867,60 €	74.141,86 €
GUZTIZKO PARTZIALA	122.548,52€	25.735,20 €	148.283,72 €
Kontratu-aldaketak 1. urtealdia (%3)	1.838,23 €	386,03 €	2.224,26 €
Kontratu-aldaketak 1. luzapena (%3)	1.838,23 €	386,03 €	2.224,26 €
ALDAKETAK PARTZIALA	3.676,46 €	772,06 €	4.448,52 €
GUZTIRA	**126.224,98 €**	**26.507,26 €**	**152.732,24 €**

Kontratu honen lizitazioak 2023-2024 ikasturterako duen oinarrizko aurrekontua 61.274,26 €-koa da, gehi %21eko BEZ (12.867,60 €), hau da, 74.141,86 € guztira, kontratuari egin lekizkiokeen aldaketak gorabehera. Lizitazioaren oinarrizko prezio horretan, zuzeneko kostuak, zeharkakoak, balizko gastuak, nahiz aplikatu beharreko lan-hitzarmenetik eratorritako soldata-kostuak hartu dira kontuan.

Kontratuak eta, hala badagokio, luzapenak irauten duten bitartean, Administrazio kontratatzaileak egokitzat jotzen dituen eta karatula honen 21. Puntuan jaso diren kontratu-aldaketak egin ahalko ditu; aldaketen zenbatekoa 3.676,46 eurokoa izango da gehienez ere (kontratuaren eta balizko luzapenen iraunaldi osorako), eta zenbateko horri BEZ-aren 772,06 euroak gehitu beharko zaizkionez, guztira, 4.448,52 eurokoa izango da aldaketen gehienezko zenbatekoa.

Kontuan hartuta hiru urtealdi posibleak (nagusiak eta balizko luzapenak) eta adierazitako kontratu-aldaketak, **126.224,98 euroko** balio zenbatetsia izango du kontratuak.

Ondorioz, **SPKL-aren 101. artikuluari** jarraikiz, zerbitzuaren guztirako balio zenbatetsia **126.224,98 eurokoa da (BEZ barik), eta %21eko BEZ-ari dagozkion 26.507,26 euroak gehitu beharko zaizkio horri, beraz, 152.732,24 euro izango dira guztira.**

3. puntua: **AURREKONTU-KONTSIGNAZIOA.** – 2023an (2023ko urriaren 2tik 2023 abenduaren 31ra) zerbitzua emateko gastua 20.424,75 €-koa da, gehi %21eko BEZari dagozkion 4.289,20 €-ak, hau da, 24.713,95 €, gastuari egin litzaizkiokeen aldaketak gorabehera. 2023ko udal-aurrekontuko “Contrato Gestión Talleres C. Cultura” izeneko 0600-3341-22763 aplikazioan kargatuko da zenbatekoa. Nolanahi ere, adjudikazioa egin ahal izateko baldintza etengarria izango da kreditu nahikoa eta egokia izatea.

Bestalde, kontratuaren iraunaldiak urte bat baino gehiago hartzen duenez, Laudioko Udalak konpromisoa hartzen du kontratu-harreman honetatik eratortzen diren betebeharrei aurre egiteko behar diren aurrekontu-aplikazio guztiak gaitzeko 2023, 2024 nahiz 2025. urteetako ekitaldietan, baldin eta kontratua luzatzen bada.

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

4. puntua: **KONTRATUAREN GAUZATZE-EPEA** - Karatularen 8. Puntuan aurreikusitakoa.

5. puntua: **ESKAINTZAK AURKEZTEKO EPEA.** - 119. artikuluan SPKL-aren 156.3 artikuluari buruz adierazia datorrenaren arabera**,** hamabost (15) egun natural iragarki hau kontratatzailearen profilean argitaratzen den egunean zenbatzen hasita.

6. puntua: **ENPRESA-SAILKAPENA ETA KAUDIMENA**. Kontratazio honen kasuan, ez da beharrezkoa erakunde kontratistaren enpresa-sailkapena. Enpresa lizitatzailea inskribatua baldin badago dagokion kontratisten erregistroan, baldintza administratiboen agiriaren 7.5 klausularen A) eta B) letretan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Aurrekoa gorabehera, eta berdin izanda enpresa kontratisten erregistroan inskribatua egotea ala ez egotea, agiri honen 7.5 klausulan adierazitako errekerimendua bidaliko zaio, eta, nolanahi ere, ekonomia- eta finantza-kaudimena ziurtatzeko dokumentazioa nahiz gaitasun tekniko eta profesionalak egiaztatzekoa aurkeztu beharko da, jarraibide hauek aplikatuta:

KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA NAHIZ GAITASUN TEKNIKO ETA PROFESIONALA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroan edo Estatuko Erregistro Zentralean inskribatuak dauden erakunde lizitatzaileek erregistro horietakoren bateko inskripzio-ziurtagiria aurkeztuta egiaztatu ahalko dute finantza- zein ekonomia-kaudimena eta gaitasun teknikoa nahiz profesionala, Agiri honetako 7.5 klausulan xedatutakoarekin bat.

Gainerako erakunde lizitatzaileek jarraian ageri den dokumentazioa aurkeztu beharko dute ekonomia- eta finantza-kaudimena nahiz gaitasun teknikoa eta profesionala egiaztatzeko:

- Ekonomia- eta finantza-kaudimena, dokumentu edota datu hauetako bat edo batzuk aurkeztuta:

  - Azken hiru urteetako urterik oneneko negozio-zifra, 91.911,39€ eurokoa edo handiagoa. Bolumen hori egiaztatzeko, administrazio-ziurtagiria edota dokumentazio pribatua aurkeztu beharko da.
  - Azken ekitaldi ekonomikoa ixtean zeukan ondare garbi positiboa, aktiboen eta pasiboen arteko ratio gisa adierazia.
  - Arrisku profesionalengatiko kalte-ordainetarako 300.000,00 €-ko edo gehiagoko asegurua kontratatu dela egiaztatzeko ziurtagiria; aseguru-etxeak jaulkitako ziurtagiria izan daiteke (zenbatekoak, aseguruak estalitako arriskuak eta aseguruaren iraungitze-data adieraziak izan behar ditu), barne hartuta asegurua luzatu edo berritzeko konpromisoa kontratuaren iraupen osoa hartzeko, balizko luzapenak ere kontuan izanda.

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

- Gaitasun tekniko eta profesionala, dokumentu edota datu hauetako bat edo batzuk aurkeztuta:

  - Azken hiru urteetan 91.911,39€-tan edo gehiagotan emandako zerbitzuak, zenbatekoa, egunak eta jasotzaile publiko zein pribatuak adierazita; gutxienez, Baldintzen agirien objektu den zerbitzuaren antzeko 2 lan egin izana jaso beharko dira. Jasotzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskumendunak jaulkitako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatu beharko dira emandako zerbitzuak edota egindako lanak; jasotzailea subjektu pribatua denean, hark jaulkitako ziurtagiri baten bidez egiaztatu beharko dira, eta ziurtagiri horren faltan, enpresaren ardura duen pertsonaren adierazpen baten bidez.

    Gaitasun teknikoa eta profesionala egiaztatzeko ziurtagiriak aurkezteko betebeharretik salbuetsiak egongo dira enpresa sortu berrien eskaintzak, alegia; bost urte baino gutxiago duten enpresen eskaintzak. Kasu horietan, enpresa sortu berriek enpresan integratuta nahiz integratu gabe egonda kontratuan parte hartuko duten langile teknikoen zerrenda bat aurkeztu beharko dute; langile horiek kontratazio hau eraentzen duen baldintza teknikoen agirian xedatutako baldintzak bete beharko dituzte, gutxienez.

Ekonomia-kaudimenari edota gaitasun tekniko zein profesionalari buruzko irizpideak egiaztatzeko agiriak beharrezkoa denean ez aurkezteak (agiriaren 7.1 klausula) automatikoki ekarriko du aurkeztutako eskaintza kanpoan geratzea.

7. puntua: **ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK.** - Baldintzen agiri honen 4. eranskinean jasotako irizpide eta balioak aplikatuko dira.

8. puntua: **KONTRATUAREN IRAUNALDIA.** – 2023-2024 ikasturteari dagokion denboraldirako kontratatuko da zerbitzua (2023ko urriaren 2tik 2024ko ekainaren 30era). Bi alderdien esanbidezko adostasunaren bidez luzapen bat (1) egin ahalko zaio, 2024-2025 ikasturterako (2024ko urriaren 1etik ekainaren 29ra); luzapena ezingo da inolaz ere isilbidez egin. Administrazio kontratatzaileak esanbidez adostu behar ditu luzapenak, eta, beraz, ezingo da inolaz ere luzapenik egin isilbidez edo inplizituki.

Hala ere, SPKL-aren 29.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, "kontratuaren mugaegunean ez denean kontratu berririk egin, kontratistak eman beharreko prestazioaren jarraitutasuna bermatzen duenik, kontratazio-organoarentzat aurreikusten ezinezkoak ziren eta adjudikazio-prozeduran gertatu diren gertakarietatik heldu diren gorabeheren ondorioz, eta interes publikoko arrazoiak daudenean prestazioa ez eteteko, jatorrizko kontratua luzatu ahalko da kontratu berria egikaritzen hasten den arte eta, nolanahi ere, gehienez ere bederatzi hilabetez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe; horretarako baldintza izango da, betiere, kontratu berrirako lizitazio-iragarkia jatorrizko kontratua amaitzeko data baino gutxienez ere hiru hilabete lehenago argitaratu izan".

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

9. puntua: **PREZIOAK BERRIKUSTEA.** - Ez da egingo kontratuaren betearazpen-aldi osoan. Martxoaren 30eko 2/2015 Legearen, Espainiako Ekonomia Desindexatzekoaren eta SPKL-aren (9/2017) 103. artikuluaren arabera, ez dagokio aurretiazko berrikuspenik.

10. puntua: **PROZEDURA.** - Adjudikazio-prozedura IREKIA da, URGENTZIAZ izapidetuko da eta ADJUDIKAZIO-IRIZPIDE BAT BAINO GEHIAGO aplikatuko da, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoaren 116, 119, 131.2 eta 156. artikuluekin bat.

11. puntua: **BEHIN-BEHINEKO BERMEAREN ZENBATEKOA**. - Ez da eskatuko (SPKL-aren 106. artikulua).

12. puntua: **BEHIN BETIKO BERMEAREN ZENBATEKOA**. - Kontratuaren adjudikazio-prezioaren %5, BEZ kanpo utzita. Horiek horrela, 3.063,713€-koa izango da behin betiko bermea guztira.

13. puntua: **BERME GEHIGARRIA. -** %5erainoko berme gehigarria eskatu ahalko zaio erakunde adjudikaziodunari, baldin eta haren eskaintzak karatularen 2. puntuan ezarritako gehienezko prezioarekin alderatuta, %20ko beherapena gainditzen badu.

Kasu horretan kontratazio-organoak bere gain hartuko lukeen arriskuaren ondorioz, berme hori beharrezkoa izan daiteke emango den zerbitzuaren bideragarritasuna justifikatzeko eta kontratua zerbitzuaren kalitatea kaltetu gabe betearaziko dela bermatzeko.

14. puntua: **FAKTUREN MAIZTASUNA**. – Hilean behin. Fakturazio bakoitzean, adjudikaziodunak xehetasun osoz jaso beharko ditu dagokion aldian emandako zerbitzu guztiak eta horretan emandako ordu kopurua.

Administrazioak hogeita hamar (30) egun balioduneko epean ordainduko du faktura bakoitza, organo eskumendunak onesten dituenetik aurrera zenbatuta. Nolanahi ere, hogeita hamar (30) egun naturaleko epean onetsiko du faktura Administrazioak dokumentua udaletxeko Erregistro Orokorrean behar bezala aurkezten denetik.

15. puntua: **BERMEA ITZULTZEA.** - Kontratua amaitu eta hilabeteko epean.

16. puntua: **ERAKUNDE LIZITATZAILEAK EGINDAKO ESKAINTZA BERE HORRETAN MANTENTZEKO NAHITAEZKO EPEA**. – Berrogeita bost (45), eskaintza ekonomikoa udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkezten denetik aurrera zenbatuta.

17. puntua: **KREDITUA EGOTEAREN BALDINTZA ETENGARRIA**. - Espedientea adjudikazio-fasea arte izapidetuko da, eta etenda geratuko da une horretan ez badaude eginda kreditu egokia eta nahikoa izateko beharrezkoak diren aurrekontu eragiketak.

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

Bestalde, eta urtebete baino gehiago iraungo duen kontratua denez, Udalak behar beste erabaki hartuko du hurrengo aurrekontuetan horretarako aurreikusitako kontsignazioa jasotzeko.

Halaber, eta kontratazioari luzapena egingo zaion kasuetan, beharrezko erabakiak hartuko ditu Udalak xede horretarako aurreikusitako diru-kontsignazioa jaso dadin.

18. puntua: **ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK:** Baldintza administratiboen agiri honen 15. artikuluan adierazitako betebeharrez gain, adjudikazioa jaso duen eskaintza aurkeztu duen enpresak lanpostu hauetan diharduten pertsonak ordezkatu beharko ditu:

- Bajen, oporraldien, enpresaren zigorren eta abarren kasuan, enpresa adjudikaziodunak bere kontura eta berehala ordezkatu beharko ditu kasuan kasuko langileak, gutxienez, kalifikazio profesionalaren maila bera duten langileekin. Nolanahi ere, Udalari aldez aurretik jakinaraziko zaio, eta esanbidez onartu beharko du ordezkapen-proposamena.
- Modu iraunkorrean, Laudioko Udalak hala eskatzen duenean, beharrezko arrazoiak emanda. Ordezkapena berehala egin beharko da, enpresa adjudikaziodunaren kontura eta, gutxienez, ordezkatu beharreko pertsona langileen maila profesional bera duten pertsona langileekin. Nolanahi ere, Udalari aldez aurretik jakinaraziko zaio, eta esanbidez onartu beharko du ordezkapen-proposamena.

19. puntua: **ESKAINTZAK AURKEZTEKO GASTUAK.** - Lizitazioak eta dokumentazioaren gutun-azal itxiak aurkezteko, erakunde eskaintzaileek ez dute inongo zenbatekorik ordaindu beharko, ezta lizitazio-iragarkiengatik ere.

20. puntua: **GIZA BALIABIDEAK KONTRATUARI ATXIKITZEA.** Erakunde adjudikaziodunak behar beste pertsona langile hornitu beharko du kontratuaren objektu den zerbitzua zehaztutako lege-baldintzetan eta baldintza teknikoetan emateko.

Zerbitzua emango duten pertsona langile guztiek euren eginkizunak betetzeko beharrezko gaikuntza izan beharko dute eta lege-betekizun guztiak ere bete beharko dituzte. Aurrekoaz gain, euskarazko B2 maila (2. H.E.) edo baliokidea izan beharko dute, baldintza teknikoen agirian xedatutakoari jarraikiz.

Betearazte-baldintza berezitzat joko da lantaldearen osaerari buruzko baldintza hori, baita kontratuaren betearazpenak irauten duen bitartean lantaldeari eutsi beharra ere, eta, beraz, horiek betetzen ez badira, kontratua suntsiarazi egingo da.

Kontratu-betearazpenari atxikitako langileak adjudikaziodunaren mende egongo dira esklusiboki, eta enpresari-izaerak berezko dituen eskubide zein betebehar guztiak edukiko ditu adjudikaziodunak, beraz, lan-legeari, gizarte-segurantzari nahiz laneko

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

segurtasunari eta higieneari buruz indarrean dauden baldintza guztiak bete beharko ditu, baita langileen jardunetik erator litezkeen tributuak nahiz betebehar fiskalak ere. Horiek horrela, Laudioko Udala salbuetsia geratuko da enpresa kontratistaren eta haren langileen arteko harremanen ondoriozko erantzukizun orotik.

-Enpresa adjudikaziodunak soldatapean dituen langileei behar bezala ordaintzeko konpromisoa hartuko du, beti dagokien hitzarmenaren arabera, eta zenbateko guztiak zuzenean bere gain hartuta. Zenbateko horiek eta langileen lan-baldintzen zein ordainsarien balizko hobekuntzen kostuak ezingo dira inola ere Udalaren kontura utzi, berdin izanik hobekuntzak hitzarmen kolektibo, itun edo bestelako akordioen ondoriozkoak diren, edo beste edozein zirkunstantziaren ondoriozkoak. Atxikipen hori kontratuaren funtsezko betebehartzat joko da, eta, beraz, udal-zerbitzuek hori egiaztatu ahalko dute kontratuaren betearazteak irauten duen bitartean. Funtsezko betebehar hori bete ezean, baldintza administratiboen agiriaren 15. Klausulan xedatutakoa aplikatu beharko da.

- Pertsona langile guztiek bete beharko dituzte baldintza administratiboen agirian zehaztutako kalifikazio profesionalak, pertsonalak eta linguistikoak, baita enpresa adjudikaziodunak aurkeztutako proiektuan eskainitakoak ere, hala dagokionean. Betebehar hori ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekarriko du.

21. puntua: **KONTRATU-ALDAKETAK. -** Behin kontratua burututa, zirkunstantzia hauetan egin ahalko zaizkio aldaketak:

1.- **Kontratu honetan aurreikusita daudenean**; karatula honen 2. puntuan adierazitako 1.838,23 euroko zenbatekoan kargatuko dira (zenbateko horri BEZ-ari dagozkion 386,03 euroak gehitu behar zaizkio, beraz, 2.224,26 euro dira guztira), betiere, baldintza hauek betetzen direnean:

* Tailer kulturalen kopurua handitzea administrazio kontratatzaileak hala eskatuta.

* Udalak eska litzakeen baina kontratuan jasoak ez dauden aurreikusi gabeko beste zerbitzu batzuk, betiere, instalazioak kudeatzeko proiektuan sartu ez badira, esaterako:

- Enpresa lizitatzaileari egotzi ezin zaizkion kausen ondorioz bertan behera geratutako tailer-orduak berreskuratzea, administrazio kontratatzaileak hala eskatuta.
- Tailer-orduak handitzea erakusketa-proiektuetarako, administrazio kontratatzaileak hala eskatuta.
- Tailer-orduak handitzea Laudioko udal-zerbitzu, elkarte edota ikastetxeekin batera proiektuak egiteko, administrazio kontratatzaileak hala eskatuta.

Kasu horietan guztietan, udal-zerbitzuetatik jakinarazpen bat bidaliko zaio enpresa adjudikaziodunari aldaketaren nondik norakoak adierazteko (epea, prezioa, etab.) eta

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

esanbidezko adostasuna ager eskatzeko.

2.- **Kontratu honetan aurreikusi gabekoak**:

- Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoaren 205. artikuluan jasotako zirkunstantziak gertatzen direnean.

- Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoaren 204. artikuluari jarraikiz, zerbitzuaren zenbatekoa doitu egingo da baldintza teknikoen agirian jasotako ordu kopuruan goranzko zein beheranzko aldaketaren bat gertatzen bada aurreikusi ezinezko zirkunstantzien ondorioz (esaterako, salbuespenezko gertakari aurreikusi ezinak) eta aldaketa horiek kontratuaren indarraldi osoa hartzen badute (luzapenak barne hartuta).
- Kontratuari geroago egin dakizkiokeen aldaketen ehuneko muga maximo gisa ezarri da kontratuaren aurrekontuaren %3.

22. puntua.- **DATUEN BABESARI BURUZKO ARAUDIA:** 1. eranskinean jasotako adierazpenaz gain, enpresa lizitatzaileek 6. eranskinean datu pertsonalen babesari buruzko jasotako konpromisoa ere aurkeztu beharko dute A gutun-azalean.

A gutun-azalean jasoak egoteaz gain, izenpetu beharreko administrazio-kontratuaren klausuletan ere sartuko dira datu pertsonalen babesari buruz 6. eranskinean jasotako klausulak.

23. puntua: **BETEARAZTE-BALDINTZA BEREZIAK**: Idatzi-zati honetan aurreikusitako baldintza berezietako baten bat betetzen ez bada, kontratua suntsiarazi egingo da, agiri honen 15. klausulari jarraikiz.

24. puntua: **ENPRESA-SUBROGAZIOA**. Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du 7. eranskinean zerrendatutako eta zerbitzua ematen jardundako langileria jatorrizko lan- eta soldata-baldintza berdinetan subrogatzeko, langile horiek ordura arte metatua zuten antzinatasuna bere horretan utzita. Betebehar horri jaramonik ez egiteak adjudikatutako administrazio-kontratua automatikoki suntsiaraztea ekarriko du.

Nolanahi ere, apirilaren 7ko 3/2016 Euskal Legearen, Kontratazio Publikoan zenbait Gizarte Klausula sartzekoaren 6.1 artikulua betetze aldera, subrogazioaren eraginpean dauden pertsona langileei buruz eskatzen duten informazio guztia emango zaie lizitazioan interesa duten pertsona guztiei.

LAUDIO
UDALA
AYUNTAMIENTO
DE LLODIO

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

LAUDIOKO UDAL-TAILER KULTURALAK ANTOLATZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIORAKO KLAUSULA EKONOMIKO ETA ADMINISTRATIBOEN AGIRIA

1. KLAUSULA
KONTRATUAREN OBJEKTUA

Karatularen 1. puntuan adierazitakoa da kontratuaren objektua.

2. KLAUSULA
ZERBITZUAREN PRESTAZIOA

Baldintza teknikoen agirian xedatutakoarekin bat emango du adjudikaziodunak zerbitzua, adjudikazioa egiterakoan egin litezkeen zehaztapenak kontuan hartuta eta Administrazioak eman liezazkiokeen jarraibideak aplikatuta.

3. KLAUSULA
ADJUDIKAZIO-PROZEDURA ETA -FORMA

Kontratu honen adjudikazioa karatularen 10. puntuan xedatutakoarekin bat egingo da.

4. KLAUSULA
KONTRATUAREN PREZIOA, FINANTZIAZIOA ETA ORDAINTZEKO ERA

Kontratuaren guztirako prezioa karatularen 2. puntuan jaso da.

Enpresa lizitatzaileek eskaintzen dituzten prezioetan kasuan kasuko tributu, tasa, ordainarazpen eta zerga guztiak jaso beharko dira. Edonola ere, xehakatua jaso beharko da kontratuaren oinarrizko zenbatekoa (kontzeptu guztiak barne, baina BEZ-ik gabe), BEZ-aren zenbatekoarekin nahiz oinarriaren eta BEZ-aren baturarekin batera. Eskaintza BEZ-etik salbuetsia badago, zirkunstantzia hori aipatu beharko da.

Kontratuaren prezioa karatularen 3. puntuan adierazitako aurrekontu-aplikazioan kargatuta ordainduko da.

Halaber, aurrekontu gaietan eskumena duen organoak konpromisoa hartu du aurrerantzean lizitazio honekin zerikusia izango duten aurrekontuetan beharrezko kredituak

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

erreserbatzeko.

Karatularen 14. puntuan adierazi da kontratistak aurkezten dituen fakturen aldizkakotasuna eta Administrazioak noiz ordainduko dituen.

Kontratuaren prezioa kalkulatzeko, kontuan hartu dira SPKL-aren 101. eta 102. artikuluak.

5. KLAUSULA
PROPOSAMENAK

5.1 Azaroaren 8ko 9/2017 legearen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoaren 139. artikuluan xedatutakoarekin bat, enpresa interesdunen proposamenak administrazio-klausula partikularren agirian adierazitakoa bete beharko dute, eta proposamena aurkezteak esan nahi du klausula edota baldintza horiek guztiak onartzen direla, erreserba edota salbuespenik gabe. Halaber, proposamena aurkezteak esan nahi du kontratazio-mahaiari nahiz kontratazio-organoari baimena ematen zaiela Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean nahiz Europar Batasuneko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

5.2 Proposamenak sekretuak izango dira eta beharrezko neurriak hartuko dira proposamenak zabaltzeko unera arte hala izan dadin.

5.3 Erakunde lizitatzaileek proposamen bakarra baino ezingo dute aurkeztu, ezingo dute beste enpresekin aldi baterako elkartea eginda bakarka aurkeztua duten proposamenik aurkeztu eta ezingo dute aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan egon aldi berean. Arau horiek hausten dituen enpresaren proposamenik ez da onartuko.

5.4. Proposamenetan, aplikazio independente gisa adierazi behar da kargatu beharreko balio erantsiaren gaineko zerga.

6. KLAUSULA
PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA, EPEA ETA FORMA

6.1 **Lekua:** Laudioko udaletxeko erregistro orokorra: Herriko Plaza, 8.

6.2 **Epea:** Eskaintzak eta dokumentazioa aurkezteko adierazi den egunean, bulego orduen barruan, 14:00ak arte.

6.3 **Forma:** Gutun-azalak fitxategi elektroniko gisa aurkezteko aukera emango duen

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

sistema gaitu bitartean, «A», «B» eta «C» gutun-azal itxiak aurkeztu beharko dira geroago adieraziko den epean eta geroago adieraziko den dokumentazioarekin, horietako bakoitzean alderdi hauek adierazita:

- Eskaintza aurkezten den espedientearen izenburua.
- Enpresaren izena.
- Eskaintza izenpetzen duen pertsonaren izena eta bi abizen, baita zein kargurekin egiten duen ere.

Erakunde lizitatzaileak edo haren ordezkaritza duen pertsonak nahitaez izenpetu beharko dituzte gutun-azalak.

6.3.1 **«A» gutun-azala: Kontratatzeko gaitasunari eta enpresa-subrogazioari buruzko adierazpena.**

* Erakunde lizitatzaileek agiri honen 1. eranskinean jasotako adierazpenak aurkeztu beharko dituzte (SPKL-aren 140. artikulua). Halaber, aukera dago kontratazio-agiri europar bakar (KAEB) deritzona aurkezteko, SPKL-aren 140. eta 141. artikuluetan adierazitakoarekin bat; KAEB aurkezten bada, kontratuaren objektua egikarituko duten pertsona langileei aplikatu beharreko hitzarmena jasoko duen erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da. Horrez gain, adierazpenean jaso beharko da enpresa lizitatzaileari berdintasun-plana edukitzea ote dagokion, eta, hala bada, berdintasun-plan hori egina ote duen adierazi beharko da; plan hori egina izan ezean, plana kontratuaren objektua egikaritzen den bitartean prestatzeko konpromisoa jaso beharko da adierazpenean.

***Aldi baterako enpresa-elkartea:** Lizitatzaile batzuek euren burua aurkezteko aldi baterako enpresa-elkarte bat osatzen dutenean, hauek adierazi beharko dituzte proposamenaren idatzian: izenpetzen duten enpresarien izenak eta zirkunstantziak, bakoitzak duen partaidetza eta kontratuak dirauen bitartean Administrazioaren aurrean enpresa guztien ordezkari goren izateko izendatu duten pertsona edo erakundea.

*__5. eranskinean jasotako adierazpena__ (Langileria subrogatzea).

6.3.2. **«B» gutun-azala: Balioespena eskatzen duten irizpideak:** “Zerbitzua kudeatzeko proposamen” deritzona edukiko du barruan. Lizitatzaileek 2. eranskinean jasotako adierazpena aurkeztu beharko dute, baita zerbitzua eranskinean zehaztutako baldintzetan emateko kudeaketa-plana eta proiektua balioesteko beharrezkotzat jotzen duen gainerako dokumentu guztiak ere.

6.3.3. **«C» gutun-azala: Eskaintza ekonomikoa:** Enpresa lizitatzaileak edo haren ordezkariak izenpetutako eskaintza bakarra baino ez du edukiko, 3. eranskinean

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

jasotako ereduaren arabera idatzita, eta, eskaintzen den prezioaren barruan, kontzeptu guztiak jaso beharko dira, alegia; zergak (baina ez BEZ), gastuak, maila fiskal guztietako tasak eta arielak nahiz pertsona kontratistaren etekin industriala. Edonola ere, partida edo aplikazio independente gisa adieraziko da balio erantsiaren gaineko zerga, eta bi zenbatekoen batura ere jaso beharko da.

Neurriz kanpoko eskaintzarik edo eskaintza anormalik antzematen bada, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoaren 149. artikuluan xedatutako izapideak egin beharko dira. Nolanahi ere, artikulu horretan prezioen edota kostuen maila justifikatu eta xehakatzeko zehazten den epeak ezingo ditu gainditu 5 lanegunak, dagokion komunikazioa igorri den egunean zenbatzen hasita.

6.3.4. **Posta bidez helarazitako proposamenak:** Proposamena postaz edo beste administrazio baten erregistroaren bidez bidaliko bada (7/1985 Legearen 121. artikuluan adierazitako Estatuko Administrazio Orokorra, Autonomia Erkidegokoa, Diputazio Probintzialekoa edo udaletakoa), eta administrazioen arteko interoperabilitatea erabat bermatua egon bitartean, erakunde lizitatzaileak justifikatu egin beharko du posta-bulegoan edo administrazioaren bulegoan bidalketa zer egun eta ordutan egin den, eta egun berean iragarri beharko dio Kontratazio Organoari eskaintza aurkeztu izana, telefax edo posta elektroniko bidez. Bi betekizun horiek bete ezean, ez da eskaintza onartuko. Hala ere, adierazi den egunetik hamar egun natural igarotzen badira eta proposamena ez bada jaso, ez da inolaz ere onartuko.

7. KLAUSULA
PROPOSAMENAK ZABALTZEA

7.1. Kontratazio-mahaiak «A» gutun-azalaren edukia aztertuko du, aurretiaz eta barne-egintza pribatuan.

7.2. 1. nahiz 5. eranskinetan adierazitako adierazpena «A» gutun-azalean jasota aurkezten ez duten enpresei hiru (3) egun balioduneko epea emango zaie aurkeztu dezaten, eta eskatutako zehaztasun guztiekin aurkezten ez badute, eskaera behin betiko baztertua geratuko da (SPKL-aren 141.2 artikuluaren).

7.3. Enpresa lizitatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioaren akatsak zuzendutakoan, Kontratazio Mahaiak publikoki zabalduko ditu **«B» gutun-azalean** jasotako eskaintzak, hau da, automatikoki zenbatetsi ezin direnak, eta irakurri egingo ditu (kontratatzailearen profilean argitaratuko da gutun-azal horiek irekitzeko eguna). Gutun-azaleko dokumentazioa balioesteko ardura duen organoari edo langile teknikoei emango zaie. Halaber, jarduketa guztiak dokumentuetan jasoak utziko da.

B gutun-azalari buruzko txostena emandakoan, Kontratazio Mahaia batzartuko da

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

eskaintza ekonomikoari buruzko **«C» gutun-azalak** zabaltzeko.

7.4. Ez dira onartuko **«B»** eta **«C»** gutun-azaletako proposamenak baldin eta:

- Kontraesanak, omisioak, akatsak edo zirrimarrak badituzte, betiere, eragotzi egiten badute Administrazioak eskaintza kontuan hartzeko funtsezko deritzona ezagutzea.

- Aztertutako eta administratutako dokumentazioarekin bat ez badatoz.

- Lizitazioaren gehienezko tipoa gainditzen badute.

- Erreматearen zenbatekoan ageriko akatsak badituzte.

- Agiri honen eranskinean jaso den proposamen eredua nabarmenki aldatu badute.

7.5 Kontratazio Mahaiak dagokion proposamena egin ostean, alkate-udalburuaren dekretu bidez ebazteko jarraian ageri den hau:

Errekerimendua helaraztea eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresari, bost (5) egun balioduneko epean (errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta) dokumentazio hau aurkez dezan:

- **DOKUMENTAZIOAREN LEHEN BLOKEA: KONTRATATZEKO GAITASUNA.**

A) A) Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroan inskribatutako lizitatzaileak. Agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. Aipatu den erregistroko pertsona arduradunak emandako **inskripzio-ziurtagiria** edo horren kopia autentifikatua.

2. Erakunde lizitatzailearen **erantzukizunpeko adierazpena,** non adierazi beharko duen dagokion ziurtagirian jaso diren inguruabarrek ez dutela inolako aldaketarik izan. Adjudikazioa jasoz gero, adierazpen hori berretsi egin beharko da kontratua formalizatuko den dokumentuan.

3. **Aldi baterako enpresa-elkartea:** Hainbat lizitatzaile batera aurkeztu direnean aldi baterako enpresa-elkarte gisa, enpresa bakoitzaren sailkapen-dokumentua aurkeztu beharko da.

4. **Kaudimen ekonomikoa eta gaitasun teknikoa:** Administrazioko Baldintzen Agiri honen karatularen 6. puntuan adierazitakoaren arabera.

Dokumentuen jatorrizko aleak aurkeztu beharko dira, edo, bestela, Administrazioak

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

edo notarioak erkatu ondoren, behar bezala legeztatutako kopiak edo fotokopiak.

B) Estatuko Erregistro Zentraleko sailkapen ziurtagiria duten lizitatzaileak. Agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. Kontratistaren **sailkapen-ziurtagiria** edo horren kopia autentifikatua, Estatuko Kontratisten Erregistro Ofizialak emana, sailkapenaren indarraldiari eta hori emateko oinarri izan ziren inguruabarrei buruzko zinpeko aitorpenarekin batera.

2. Erakunde lizitatzailearen **erantzukizunpeko adierazpena**, non adierazi beharko duen dagokion ziurtagirian jaso diren inguruabarrek ez dutela inolako aldaketarik izan. Adjudikazioa jasoz gero, adierazpen hori berretsi egin beharko da kontratua formalizatzeko den dokumentuan.

3. **Aldi baterako enpresari-elkartea:** Hainbat enpresa lizitatzaile batera aurkeztu direnean aldi baterako enpresa-elkarte gisa, enpresa bakoitzaren sailkapen-dokumentua aurkeztu beharko dute.

4. **Enpresaren ordezkariek izenpetutako aitorpena, kontratatzeko debekurik ez izateari buruzkoa.**

5. Indarrean dauden xedapenetan jasotako Gizarte Segurantzarekiko obligazioak eta zerga-arloko betebeharrak egunean izateari buruzko **ziurtagiri egiaztatzailea**. Horretarako, Estatuko Ogasunak edo Foru Ogasunak eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak emandako administrazio-ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, sozietateen zergan azaldutako eragiketen guztirako bolumenaren arabera, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onestekoaren 14. artikuluan aurreikusitako irismenaz eta formaz. Horiek ematen direnetik 6 hileko balio aldia izango dute, aipatu den Errege Dekretuaren 16. artikuluan aurreikusitakoarekin bat. Ekonomia jardueren zergari dagokionez, horren alta aurkeztu beharko da eta, hala badagokio, azken ordainagiria ere.

6. **Laudio Udalarekiko** zerga ordainketak eta beste edozein ordaintze-errekerimendu egunean dituztela **egiaztatzeko ziurtagiria,** Udaleko Diruzaintza Zerbitzuak emana.

7. **Kaudimen ekonomikoa eta gaitasun teknikoa:** Administrazioko Baldintzen Agiri honen karatularen 6. puntuan adierazitakoaren arabera.

Dokumentuen jatorrizko aleak aurkeztu beharko dira, edo, bestela, Administrazioak edo notarioak erkatu ondoren, behar bezala legeztatutako kopiak edo fotokopiak.

C) Aurreko egoeretan ez dauden lizitatzaileak: Agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

1. **Nortasun agiri nazionala,** pertsona fisikoak badira. Proposamen ekonomikoa izenpetu duen pertsonaren NAN-aren fotokopia zilegiztatu eta erkatua aurkeztuko da.

2. Lizitatzailea pertsona juridikoa denean eta merkataritza-lege aplikagarrien arabera betekizuna ezar daitekeenean, Merkataritza Erregistroan inskribaturiko **enpresaren eratze-eskritura** edo, hala badagokio, aldatze-eskritura. Betekizuna ezin denean ezarri, kasuan kasuko erregistro ofizialean inskribatutako enpresaren jarduera-arauak dauzkan eratze- edo aldatze-eskrituraren, estatutuen edo fundazio-egintzaren bidez frogatuko litzateke aritzeko gaitasuna.

Europako Erkidegoko Estatu kideetako enpresari atzerritarren kasuan, euren eratze-dokumentuak aurkeztu behar dituzte, gaztelaniara edo euskarara modu ofizialean itzuliak, eta, horrez gain, frogatu egin beharko dute lanbide- edo merkataritza-erregistro batean inskribaturik daudela, kasuan kasuko Estatuko legediak betebehar hori eskatzen duenean.

Azkenik, Europar Erkidegoko kide ez diren Estatuetako enpresari atzerritarren kasuan, Espainian sukurtsal ireki bat izan eduki behar dute eta Merkataritza Erregistroan inskribatutako eratze-eskritura (jatorrizkoa, kopia kautotua edo erkatua) eta jatorrizko Estatuko espainiar ordezkaritza diplomatikoaren txostena, zeinetan adierazi beharko den jatorrizko Estatu horrek onartu egiten duela espainiar enpresek parte hartzea bere Administrazioarekin kontratatzeko orduan (salbu eta lizitazioa Europako Erkidegoetako Egunkari Ofizialean iragartzen denean eta Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu zuten Estatuetako enpresak direnean).

3. Eskaintza ekonomikoa izenpetu duen pertsonaren aldeko a**halorde-eskritura,** jarduneko letraduak, notarioak edo udal-idazkariak askietsia eta, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, administrazioarekin kontratatzeko ahalmenez. Pertsona juridikoa den kasuetan aurkeztu beharko da, edo enpresaren erregistroko titularra den pertsonak eskaintza ekonomikoa izenpetu ez duenean.

4. **Kontratatzeko debekurik ez izateari** buruzko aitorpena. Aitorpenean jaso beharko da indarrean dauden xedapenetan ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izateari buruzko adierazpena, baina, hala ere, behin betiko adjudikazioa egin aurretik, adjudikazioa jasoko duen enpresariek betekizuna egiaztatzeko justifikazioa aurkeztu beharko dute, agiri hauen bidez:

> a) Sozietateen gaineko zergan ageri den eragiketen guztirako bolumenaren arabera, Estatuko Ogasunak edo Foru Ogasunak emandako administrazio-ziurtagirien bidez eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren administrazio-ziurtagiriak aurkeztuta egiaztatuko da, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren, Administrazio Publikoen Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorra onestekoaren 14. artikuluan aurreikusitako irismenaz eta formaz. **Ekonomia jardueren gaineko zergari** dagokionez, altaren agiria aurkeztu beharko da, eta, hala badagokio, horren **azken ordainagiria**.

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

b) Laudioko **Udalarekiko tributu eta zergen ordainketa egunean izatea.**

5. Kaudimen ekonomikoa eta gaitasun teknikoa, baldintza administratiboen agiri honen karatularen 6. puntuan adierazitakoaren arabera.

6. Hala dagokionean, **aldi baterako enpresa-elkartearen** aitorpena.

Dokumentuen jatorrizko aleak aurkeztu beharko dira, edo, bestela, Administrazioak edo notarioak erkatu ondoren, behar bezala legeztatutako kopiak edo fotokopiak.

Kontratisten sailkapena egiaztatzeko aurkezten diren Administrazioaren dokumentuek jaulki diren dataren eta ziurtagirian bertan adierazitakoaren araberako balio-aldia izango dute.

- **DOKUMENTAZIOAREN BIGARREN BLOKEA: BEHIN BETIKO BERMEA ETA DATUEN BABESERAKO ARAUEI JARRAIKIZ AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.** Agiri hauek aurkeztu beharko dituzte erakunde lizitatzaileek**:**
  - Karatularen 12. puntuan adierazitako behin betiko bermea, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoaren 96. artikuluan araututako eta klausula administratiboen agiri honen 10. klausulan garatutako moduetako edozeinetan.
  - Baldintza administratiboen agiriaren 6. eranskinean jasotako adierazpena.

Errekeritu zaien dokumentazioa aurkezten ez duten enpresei bost (5) egun naturaleko epea emango zaie akatsa zuzentzeko, eta eskatutakoa zorrotz beteta zuzentzen ez badute, parte hartzeko eskaera behin betiko baztertuko da.

Hiru (3) egun naturaleko epea eman ahalko da aurkeztutako dokumentazioan antzemandako akats material edo egintzazkoak zuzentzeko, jarraian datorren paragrafoan eman diren azalpenekin bat.

Errekerimendua ez bada adierazitako epe horretan betetzen, erakunde lizitatzaileak eskaintza atzera bota duela ulertuko da, eta, kasu horretan, dokumentazio berdina eskatuko eskaintzen sailkatze-hurrenkeraren arabera hurrengo postuan dagoen kontratistari. Nolanahi ere, eskaintza atzera botatzen duten lizitatzaileei lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren %3 eskatuko zaie zehapen gisa, BEZ kanpo utzita.

- **DOKUMENTAZIOAREN HIRUGARREN BLOKEA:** 2016ko martxoaren 1az geroztik, Adingabeen Lege berria eta Boluntariotzaren Legea aplikatuta, lan-harreman bidez edo boluntario gisa adingabeekin lan egiten duen pertsona orok egiaztatu egin behar du ez duela aurrekari penalik sexu-delituengatik, sexu izaerako delituen ziurtagiria aurkeztuta. Horren helburua da adingabeak arrisku-egoeretatik babestea. Hortaz, erakunde adjudikaziodunak ziurtagiri hori aurkeztu beharko du adingabeei tailerrak ematen dion pertsona bakoitzaren kasuan. Ziurtagiria eskuragarri dago Justiziako Lurralde Gerentzietan, Gobernuaren Azpiordezkaritzetan eta Eusko Jaurlaritzako Zuzenean zerbitzuan. Dokumentazio hori ez

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

aurkezteak eskaintza lizitazio prozesutik kanpo geratzea eragingo du.

8. KLAUSULA
ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

4. eranskinean azaldu dira adjudikazioa egiteko oinarri gisa erabiliko diren irizpideak.

9. KLAUSULA
ADJUDIKAZIOA

1.- Kontratazio Organoak dokumentazioa jaso ondorengo bost egun baliodunetan adjudikatu beharko du kontratua.

Ezin izango da adjudikatu gabe utzi lizitazio bat baldin eta agirian ageri diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.

2.- Adjudikazioa arrazoitu egin beharko da, hautagai edo lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da aldi berean, hamabost (15) eguneko epean.

SPKL-aren 151. artikuluari jarraikiz, adjudikazio-prozesuan interesdun diren enpresek adjudikazio-erabakiaren aurka behar bezala oinarritutako errekurtsoa aurkeztu ahal izateko beharrezkoa den informazio guztia eduki beharko dute jakinarazpenek eta argitalpenek.

3.- Edonola ere, formalizatzeko epea zein den adierazi beharko da jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean.

4.- Kontratazio Organoak baizik ezin du erabaki kontratua formalizatzeari edo prozedurari uko egitea, betiere, adjudikazioa egin aurretik. Bi kasu horietan, enpresa lizitatzaileei konpentsazioa emango zaie haien eskaintzak aurkezteagatik, dagokion udal-ordenantza fiskalari jarraikiz eta enpresek horretarako eskaera aurkeztu ostean.

Adjudikazioduna hautatzeko irizpide bakarra prezioa denean, proposamenak ireki diren egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta, zortzi (8) eguneko epean egin beharko da adjudikazioa, gehienez ere.

Kontratua adjudikatzeko kontuan hartu behar diren irizpideak bat baino gehiago direnean, behin-behineko adjudikazioa egiteko gehienezko epea bi hilabetekoa izango da, proposamenen gutun-azalak ireki diren egunetik zenbatzen hasita, betiere, klausula administratibo partikularren agirian beste epe bat ezarri ez bada.

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

10. KLAUSULA
BEHIN BETIKO BERMEA ETA BERME OSAGARRIA ERATZEA

Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoaren 108. artikuluan zerrendatutako moduetako edozeinetan eta bertan zehaztutako betekizunak errespetatuta eratu ahalko da bermea:

- Eskudiruz edo zor publikoko baloreetan.

- Espainian jarduteko baimena duten banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba, krediturako finantza-establezimendu edota elkar bermatzeko sozietateetako batek emandako abal baten bidez.

- Kauzio-aseguru baten kontratua izenpetuta arloan jarduteko baimena duen erakunde aseguratzaile batekin.

Bermea eratu izana egiaztatzeko, ezingo da bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikorik erabili.

11. KLAUSULA
EKONOMIA JARDUEREN GAINEKO ZERGA

Enpresa adjudikaziodunak ez badauka Laudioko Udalean ekonomia jardueren gaineko zergaren alta emanda, alta formalizatu beharko du, edo zortzi (8) eguneko epean egiaztatu beharko du probintziaren bateko edo Estatuko ekonomia jardueren gaineko zergan altan emanda dagoela. Azken epe hori adjudikazioaren jakinarazpena jasotzen den egunetik aurrera zenbatuko da.

12. KLAUSULA
KONTRATUA FORMALIZATZEA

12.1. Kontratua formalizatzeko dokumentu administratiboak zehatz-mehatz bete beharko ditu lizitazioaren baldintzak, eta balio nahikoa izango du titulu gisa edozein erregistro publiko atzitu ahal izateko. Ezin izango da inolaz ere kontratua formalizatzeko dokumentuan jaso adjudikazioaren baldintzak aldatuko lituzkeen klausularik.

12.2. SPKL-aren 153.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta kontuan hartuta kontratuaren aurka kontratazio-arloko errekurtso berezia aurkeztu daitekeela, ezingo

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

da formalizazioa egin enpresa lizitatzaileei adjudikazioaren jakinarazpena eman zaienetik zortzi (8) egun igaro baino lehenago.

Behin epe hori agortuta, ez bada aurkeztu kontratuaren formalizazioa etetea eragingo lukeen errekurtsorik, edo errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak formalizazioa eteteko agindua atzera bota badu, erakunde adjudikaziodunak bost (5) eguneko epean formalizatu beharko du kontratua, adjudikaziodunak formalizazio-errekerimendua jaso duen egunaren biharamunean zenbatzen hasita.

12.3. Baldin eta enpresa adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen kausak direla medio ez bada kontratua epe horretan formalizatzen, Administrazioak lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren %3 (BEZ kanpo) eskatuko dio adjudikaziodunari zehapen gisa; lehenik eta behin, behin betiko bermetik kobratuko da zenbateko hori, betiere, berme hori eratua badago. Kasu horretan, eskaintzen sailkapenaren hurrenkeran hurrengo postua duen enpresa lizitatzaileari adjudikatuko zaio kontratua, betiere, enpresa horrek agiri honen 7. klausulan ezarritako betekizunari dagokion dokumentazioa aurkeztu ostean.

Ez formalizatzeko kausak Administrazioari egotzi badakizkioke, kalte-ordaina emango zaio enpresa kontratistari, atzerapenak eragin liezazkiokeen kalteengatik.

12.4. Ezingo da kontratua formalizatu aurretik egikaritzen hasi, betiere, izapideak ez badira urgentziaz egin.

12.5. Kontratugilearen profilean argitaratuko dira kontratu txikien zenbateko berdina edo handiagoa duten kontratuen formalizazioak, gutxienez ere, adjudikazioaren iragarkian aipatutako datuak jasota.

13. KLAUSULA
KONTRATUA BETEARAZTEA

Agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian jasotako klausulen arabera eta, hala dagokionean, Udalak baldintzak betetze edo interpretatze aldera eman ditzakeen idatzizko jarraibideekin bat betearaziko da kontratua.

Egiaztatzen bada enpresa adjudikaziodunak preskripzio teknikoen agirian jasotako betebeharren bat ez duela bete, espedientea abiaraziko da eta entzunaldia emango zaio, alegazioak aurkezteko aukera izan dezan.

14. KLAUSULA
ADMINISTRAZIOAREN ETA ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN ARTEKO HARREMANAK

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

Administrazioaren eta adjudikaziodunaren arteko harremanak Administrazioak izendatutako langile teknikoen bidez izango dira normalean; kontratua adjudikatzeko erabakian jakinaraziko zaio adjudikaziodunari nor izendatu den horretarako.

Halaber, adjudikaziodunak kontratua amaitu arte zerbitzua koordinatzeko eta beharrezkoak diren eragiketa guztiak bideratzeko ardura izango duen pertsona izendatuko du, eta eragiketa horiek adjudikaziodunaren lege-ordezkariaren pertsonan eta helbidean bertan egin izan balira bezalako eragina izango dute.

Administrazioari jakinarazi beharko zaio adjudikaziodunaren ordezkariaren izendapena, gehienez ere, zortzi (8) eguneko epean kontratazioaren adjudikazioaren jakinarazpena egin zenetik zenbatzen hasita, eta izendatutako ordezkariaren kalifikazio teknikoari nahiz profesionalari buruzko behar beste datu eman beharko zaio Administrazioari.

Erakunde adjudikaziodunaren ordezkaritza duen pertsona aldatu ahalko da kontratua indarrean dagoen bitartean, edozein unetan, Administrazioak hala eskatzen badu.

15. KLAUSULA
ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK

15.1. Erakunde adjudikaziodunak betebeharra dauka bere egoitza edo bere ordezkaritza duen pertsonaren egoitza Administrazioari jakinarazteko; hamabost (15) eguneko epea izango du horretarako, adjudikazioaren jakinarazpena eman zaion egunetik aurrera zenbatuta.

15.2. Kontratua indarrean dagoen bitartean, enpresa adjudikaziodunak betebeharra izango du tributuei, lanari, Gizarte Segurantzari nahiz lan-segurtasunari eta higieneari dagokienez indarrean dauden xedapenak betetzeko; hortaz, Administrazioak ez du erantzukizunik izango horiek betetzen ez badira. Edonola ere, Administrazioari jakinarazi beharko zaizkio zerbitzua ematen duten langileen alta zein baja guztiak, gertatu eta hurrengo bost (5) egunean, udaletxeko erregistro orokorrean idatzia aurkeztuta.

Kontratua izenpetu ostean eta beti prestazioa hasi baino lehenago, Udalak egiaztatu egingo ditu kontratua betearaziko duten pertsona langileen Gizarte Segurantzako afiliazioak eta altak. Arauren bat betetzen ez bada, adjudikaziodunak hiru (3) egun balioduneko epe bakar eta luzaezina izango du erregularizatu beharrekoak erregularizatzeko. Berriro egiaztatuta ikusten bada arau-urraketak bere horretan jarraitzen duela, Administrazioak kontratua amaiarazi egingo du.

Halaber, kontratua betearazten ari den edozein unetan, Administrazioak dokumentazioa eskatu ahalko dio adjudikaziodunari kontratua betearazten duten langileak Gizarte Segurantzara afiliatzeko zein alta emateko betebeharrak bete direla

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

egiaztatzeko, baita langileen ordainsariak behar bezalako epean eta moduan ordaindu direla egiaztatzeko ere. Betebehar horiek betetzen ez badira, adjudikaziodunak hiru (3) egun balioduneko epe bakar eta luzaezina izango du erregularizatu beharrekoak erregularizatzeko. Berriro egiaztatuta ikusten bada arau-urraketak bere horretan jarraitzen duela, Administrazioak kontratua amaiarazi egingo du.

Kontratua betearazten den bitartean eta Administrazioaren aldetiko egiaztapen-ekintza baten ondorioz ikusten bada kontratua betearazten duten langileen afiliazio- eta alta-betebeharrei edota euren ordainsariak behar bezalako epean eta forman ordaintzeari buruzko arauak urratu direla, kontratua amaiaraziko da, arau-urraketak konpontzeko aukerarik gabe.

15.3. Edozein arrazoirengatik edota harreman iraunkor edo aldi baterakoengatik laguntza ematen duten pertsona guztiak adjudikaziodunaren zerbitzura egongo dira soilik, eta, beraz, ez dute inongo harremanik izango Laudio Udalarekin. Horiek horrela, adjudikaziodunaren ardura izango da indarrean dauden arauetatik eratortzen diren zerga-, lan- eta gizarte-betebeharrak betetzea pertsona horiei dagokienez; ondorioz, ez da Laudio Udalarentzako inolako erantzukizunik eratorriko alderdi horiei dagokienez kontratu honetatik.

Betebeharren artean sartu da, esanbidez, kasuan kasuko sektorean aplikatu behar den eta indarrean dagoen hitzarmen kolektiboa, barne hartuta ordainsarien inguruko preskripzioak, eta, beraz, ordaindu beharreko soldata ezingo da inolaz ere hitzarmenean zehaztutakoa baino txikiagoa izan.

15.4. Aurrekoaren ondorioz, Laudio Udalak ez du inolako erantzukizunik izango adjudikaziodunaren lege-ordezkariek, edozein tituluren bitartez adjudikaziodunari laguntzen dioten edo zerbitzuak ematen dituzten pertsonek hirugarrenei egitez edo ez-egitez eragin liezazkieketen kalteei dagokienez, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoaren 196. artikuluari jarraikiz. Halaber, enpresa adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da zerbitzua emateko beharrezkoak diren udal-ondasun higiezin nahiz higigarriei eragindako kalteengatiko ordaina.

Administrazioak adjudikaziodunari zerbitzua eman ahal izateko hornitzen dizkion ondasun higigarriak adjudikaziodunaren zaintzapean geratuko dira eta, beraz, ondasunak gordetzeko eta itzultzeko betebeharra izango du adjudikaziodunak. Ondasun horiek gordetzeari edota galtzeari dagokienez, Kode Zibilean, Merkataritza Kodean nahiz Zigor Kodean xedatutakoa aplikatu beharko da.

15.5 Espresa kontratistak arriskua eta mentura bere gain hartuta betearaziko du kontratua, eta, beraz, ez du kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izango zerbitzua eman bitartean gerta litezkeen galera, matxura edota kalteengatik.

Enpresa kontratistaren ardura izango da zerbitzua betearazteko egiten diren jardueren ondorioz hirugarrenei eragin liezazkiekeen kalteengatiko ordainak ematea, baita bere

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

betebeharrak ez betetzearen ondorioz eragindako kalteen ordainak ematea ere, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoaren 196. artikuluan jasoak dauden baldintzetan.

Halaber, zerbitzua eman ahal izateko Administrazioak adjudikaziodunari hornitzen dizkion ondasun higigarriak adjudikaziodunaren zaintzapean geratuko dira, eta, beraz, ondasunak gordetzeko eta itzultzeko betebeharra izango du adjudikaziodunak. Ondasun horiek gordetzeari edota galtzeari dagokienez, Kode Zibilean, Merkataritza Kodean nahiz Zigor Kodean xedatutakoa aplikatu beharko da.

15.6 Enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira beharrezko lizentzia edo baimen administratibo guztiak, eta, beraz, bere izenean eskatu beharko ditu beti.

15.7 Erakunde adjudikazioduna izango da zerbitzua betearazteko ardura duten langileen garbitasun, begiramen edota uniformetasun falten erantzulea. Halaber, konpromisoa hartuko du behar bezalako zuzentasunez, gaitasun teknikoaz eta efizientziaz jokatzen ez duten langileak zerbitzutik kentzeko.

15.8 Enpresa adjudikaziodunak bete egin beharko ditu laneko arriskuak prebenitzeari dagokionez indarrean dauden legeetatik eratortzen diren betebehar guztiak, Legean xedatutako tresnak konfiguratuta, behar bezala aplika dadin kontratu honen kariaz bideratuko den jardueraren lan-arriskuak prebenitzeko araudia; hortaz, enpresa adjudikazioduna izango da betebehar horiek betetzeko eta betearazteko arduradun bakarra, eta, ondorioz, betebehar horiek ez betetzearen edo txarto betetzearen ondorioen erantzule bakarra ere izango da.

Hartara, Laneko Arriskuak Prebenitzeko Legearen 24. artikuluan eta Legea garatzeko gainerako araudietan xedatutakoa betetzeko, prebentzioari dagokion dokumentazio eta erregistro guztiak bete eta izenpetu beharko ditu kontratatutako zerbitzuak ematen hasi aurretik, enpresa-jarduerak koordinatzeko prozedurari jarraitze aldera.

15.9 Zerbitzuaren eskaintza adjudikaziodunak kontratuaren objektu den jarduera bideratuko duten pertsona langileei aplikatu beharko zaien hitzarmena adierazi beharko du eta hitzarmen horretan jasotako soldatak ordaindu beharko dizkie bakoitzari dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta, beraz, ordainduko zaien soldatak ezingo du inolaz ere horren azpikoa izan.

15.10 GREBA: Greba badago, enpresa adjudikaziodunaren ardura izango da beharrezko zerbitzu minimoak betetzen direla bermatzea, betiere, indarrean dagoen araudiarekin bat negoziatu ondoren. Grebak irauten duen bitartean, adostutako zerbitzu minimoei dagokien zatia ordaindu beharko zaie.

15.11 Erakunde adjudikaziodunak erantzukizun zibileko poliza bat (orokorra, patronala eta gurutzatua) izan beharko du kontratuak dirauen bitartean, gutxienez, 300.000,00 euroko estaldurarekin, kontratuaren betearazpenean pertsonei edota objektuei

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

(ustiapena eta produktuak) eragin lekizkiekeen kalteei aurre egiteko. Arau-hauste oso larritzat hartuko da asegurua indarrean ez izatea edota horren baldintza minimoak ez betetzea. Kasu horretan, adjudikaziodunak hiru egun balioduneko epe bakar eta luzaezina izango du erregularizatu beharrekoak erregularizatzeko. Berriro egiaztatuta ikusten bada arau-urraketak bere horretan jarraitzen duela, Administrazioak kontratua amaiarazi egingo du. Horretarako, kontratuaren betearazpenak irauten duen bitartean edozein unetan, Udalak adjudikaziodunari eskatu ahalko dio beharrezko estaldura duela egiaztatzeko dokumentazioa aurkez dezala.

15.12 Erakunde adjudikaziodunak nahitaez bete beharko ditu kasuan kasuko hitzarmen sektorialetan xedatutako baldintzak, bereziki, zerbitzuaren objektu diren lanak egiten dituzten pertsona langileen kontratuak subrogatzeari buruzkoak, baldin eta enpresa edo langileak hitzarmen horren eraginpean badaude. Zentzu horretan, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoaren 130. artikuluari jarraikiz (Lege horren bidez sartu ziren Espainiako ordenamendu juridikoan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak), 7. eranskinean jaso da subrogazioaren eragina izango duten pertsona langileen kontratuei buruzko informazioa. Artikulu hori aplikatuta, informazio gehiago emango zaie hala eskatzen duten enpresa lizitatzaileei, dagozkien lan-kostuak ebaluatu ahal izan ditzaten.

15.13 Hizkera ez-sexista erabiltzea: Hizkera ez-sexista erabili beharko da une oro kontratuan edo kontratuarekin erlazionatuak dauden dokumentu, komunikazio nahiz irudi guztietan, baita kontratuaren prestazioaren gainerako alderdi guztietan ere.

15.14 Hizkuntza-betebeharrak. Nahitaez bete beharreko kontratu-baldintzak dira hizkuntza-baldintza hauek:

Herritarrekiko harremanak eta komunikazioak

Herritarrekin nahiz Udalarekin harremanak izango dituztenez, Udalak herritarrekiko harremanetan aplikatzen dituen hizkuntza-baldintza berberak bermatu beharko dituzte enpresak eta haren pertsona langileek, hau da, Udalak onetsitako hizkuntza-irizpideak bete beharko dituzte.

Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan eta euskarari lehentasuna emanda egin beharko dira herritar guztientzat diren idatzizko nahiz ahozko komunikazioak, alegia; komunikazioak, oharrak, abisuak eta zerbitzuaren kudeatzaileek herritarrei zuzentzen dizkieten gainerakoak.

Beraz, enpresa adjudikaziodunak bermatu egin beharko du zerbitzua Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan emateko gaitasuna duela, eta aukera hori benetakoa izan dadin, herritarrekiko komunikazioak bi hizkuntzetan egiteko gai dela bermatu beharko du.

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

15.15 Betearazte-baldintza bereziak.

SPKL-aren 202. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, kontratu honen betearazte-baldintza berezi gisa ezarri da kontratu-betearazpenaren eragina izan dezaketen ingurumen-balioak beren horretan mantentzea edota hobetzea, jarraibide hauek errespetatuta:

- Ahal dela, formatu elektronikoan emango dira dokumentuak (albaranak, fakturak, txostenak, etab.). Inprimatu beharra badago, eta ez badago irakurtzeko arazorik, paper birziklatuan inprimatuko dira dokumentuak, bi orrialdeetan eta zuri-beltzean.

Kontratuaren betearazpena amaitzean, baldintza horiek bete izana baieztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du enpresa adjudikaziodunak.

a.- Euskararen erabilerari buruzko betearazte-baldintza bereziak

Umeentzako tailerretan, eta kontuan hartuta kontratatzen den zerbitzuaren helburua dela gure neska-mutilek kultura- nahiz jolas-jardueretan euskara erabiltzea, tailerren arduradunek hizkuntza horretan hitz egin beharko diete beti, eta irudizko material oro ere euskaraz bakarrik inprimatu beharko da.

Halaber, enpresak euskara hutsean egiteko zenbait tailer proposatuko du ume, gazte, heldu eta nagusientzat.

Gainerako tailerretan, tailerren ardura duten pertsonek euskaraz zein gaztelaniaz egingo dute ikasturtearen hasierako aurkezpena, eta pertsona erabiltzaileak animatuko dituzte haiekin nahi duten hizkuntza koofizialean hitz egitera. Euskaraz adierazitako iruzkin, zalantza, galdera edo iradokizunei hizkuntza horretan erantzungo zaie, eta elkarrizketaren xehetasun garrantzitsuen laburpena egingo dute gaztelaniaz, euskaraz ez dakiten pertsonek argibideak eta informazioa uler ditzaten. Irudizko material oro bi hizkuntzetan inprimatu beharko da.

b.- Ingurumenari buruzko betearazte-baldintza bereziak

Lantaldearen osaeraren inguruko baldintzez gain, kontratu honen betearazte-baldintza berezi gisa ezarri da enpresa adjudikaziodunak Udalari ematen dion material inprimatu guztia birziklatua izan behar dela (alde batera utzita euren izaeraren ondorioz bestelako paper edo euskarrietan inprimatu beharreko materialak).

c.- Emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko baldintza bereziak.

Hizkera ez-sexista erabiltzea

Enpresa adjudikaziodunak nahitaez bete egin beharko ditu Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legetik, otsailaren 18kotik nahiz martxoaren 3ko 1/2022

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

Legetik, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legeari bigarren aldaketa egitekotik eratorritako betebehar guztiak. Zehazkiago, hizkera ez sexista erabili beharko da dokumentazio, publizitate, irudi nahiz material guztietan, emakumeak diskriminatzen dituen nahiz estereotipo sexistak dauzkan irudi oro ekidin beharko da eta berdintasunaren baloreak, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna eta genero-identitateen nahiz –rolen pluraltasuna sustatzen duen irudia eman beharko da.

Informazioa sexuen arabera desagregatzea

Hala badagokio, azkenean adjudikazioa jasoko duen enpresak informazioa sexuen arabera desagregatzeko hartutako konpromisoa nahitaez betetzekoa izango da eta kontrataziorako baldintza berezia izango da.

Berdintasun plana

Lizitatzaileak nahitaez bete beharko du martxoaren 3ko 1/2022 Legearen, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legeari, otsailaren 18koari bigarren aldaketa egitekoaren 21. artikuluan xedatutako betebeharra, hau da, enpresak 50 pertsona langile baino gehiago baditu, berdintasun-plan bat edukitzeko betebeharra. Ez da onartuko 50 pertsona langile baino gehiago dauzkaten enpresen eskaintzarik baldin eta berdintasun planik ez badute.

50 pertsona langile baino gutxiago dauzkaten enpresek konpromiso irmoa hartu beharko dute kontratua betearazten den bitartean berdintasun plana prestatzeko. Horretarako, I. eranskinean jasotako eredua erabili beharko dute horren inguruko aitorpena egiteko. Kontratua amaitzean berdintasun plana izapidetua eta inskribatua ez izatea arau-hauste larritzat joko da, eta, ondorioz, behin betiko bermea konfiskatuko da.

16. KLAUSULA
PREZIOA ORDAINTZEA

Karatularen 14. puntuan adierazitako moduan egingo da kontratu honen objektu den prestazioaren prezioa, dagokion faktura aurkeztu ostean.

17. KLAUSULA
ARRISKUA ETA MENTURA. LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA

17.1 Enpresa adjudikaziodunak hartuko ditu bere gain kontratu-betearazpenaren arriskua eta mentura.

17.2 Ezingo da kontratuaren lagapena egin inolaz ere.

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

17.3 Kontratistak Udalari jakinarazi beharko dizkio egin nahi dituen azpikontratazio guztiak, argi adierazita enpresa azpikontratistak, horietako bakoitzak betearazi beharko dituen kontratu zatiak, horien zenbatekoak nahiz azpikontratisten gaitasun teknikoari edota profesionalari buruzko xehetasunak. Ezingo da inolaz ere kontratuaren betearazpen partziala kontratatu sailkapenak bertan behera dituzten pertsonekin edota kontratatzeko gaitasungabetuak daudenekin.

Enpresa azpikontratistek adjudikaziodun nagusiari baino ez dizkiote kontuak eman beharko, eta adjudikaziodun nagusiak baino ez du izango kontratuaren betearazpenaren ardura Udalaren aurrean. Administrazioak egindako azpikontratuen berri izateak ez du kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboa aldatuko.

Erakunde kontratistak nahitaez ordaindu beharko die zerbitzuaren azpikontratistei edo hornitzaileei adostutako prezioa, SPKL-aren 216. artikuluan adierazitako epe eta baldintzetan. Kontratazio-organoak aukera izango du egiaztatzeko kontratista nagusiak azpikontratista edota hornitzaileekiko dituen ordainketa-betebeharrak zorrozki bete dituela. Hortaz, kontratista adjudikaziodunek kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten eta hornitzaileen zerrenda xehakatua helarazi beharko diote kontratazio-organoari horien parte-hartzea burututakoan, azpikontratazio- edota hornitze-baldintza berezien zerrendarekin batera, baldintza horiek ordainketa-epearekin erlazio zuzena badute. Halaber, prestazioa amaitutakoan, azpikontratista edota hornitzaileekiko ordainketa-betebeharrak Legean ezarritako epeen barruan bete direla egiaztatzeko ziurtagiria ere aurkeztu beharko dute. Betearazte-baldintza bereziak dira azpikontratistei ordaintzeko betebehar horiek; beraz, ez badira betetzen, behin betiko bermearen zenbatekoaren pareko zehapena ezarriko zaio adjudikaziodunari.

18. KLAUSULA
ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

18.1 Baldintza administratibo eta teknikoen agirian zehaztutako zerbitzuaren objektu diren prestazioak partzialki betetzen ez badira edo ez-betetze akastuna gertatzen bada, horren kausak enpresa kontratistari egotz badakizkioke eta agirian ez bada adjudikaziodunaren kontrako beste zehapen edo ondoriorik aurreikusi, Administrazioak:

a) Dagokion urteko kontratu-prezioaren %1-eko zehapena ezarriko dio, betiere, enpresa adjudikaziodunarekin kontraesaneko espedientea egin ostean.

b) Baldin eta aurreko letrari jarraikiz ezarritako zehapenak kontratuaren guztirako prezioaren %5era iristen bada (urte guztiak zenbatuta), kontratazio-organoak kontratua suntsiarazi ahalko du, betiere, interes publikoaren mesedetan hobe ez bada

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

kontratuarekin jarraitzea.

18.2 Baldintza administratibo eta teknikoen agirian zehaztutako zerbitzuaren objektu diren prestazioak erabat eman gabe geratzen badira kontratistari egotz dakizkiokeen kasuak direla medio, Administrazioak kontratua suntsiaraziko du.

18.3 Kontratuaren objektu diren prestazioak ematean **atzerapenik** badago, ez-betetze akastuna gertatu dela ulertuko da, eta, beraz, horretarako aurreikusi diren zehapenak ezarriko dira.

19. KLAUSULA
KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Aurreko paragrafoan aipatutakoez gain, hauek ere kontratua suntsiarazteko kausak izango dira:

a) Udalak edozein unetan frogatzea lizitazio-fasean enpresak aurkeztutako edozein datu edo dokumentu faltsua dela.

b) Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL-ren) 211. eta 313. artikuluetan adierazitakoak.

c) Betearazte-baldintza bereziak edota baldintza administratiboen agiri honetan jasotako beste edozein baldintza ez betetzea.

20. KLAUSULA
KONTRATUAREN IRAUPENA ETA LUZAPENAK

Karatularen 8. puntuan zehazten dira kontratu honen iraupena nahiz bi aldeek adostu ditzaketen luzapenak.

Administrazio kontratatzaileak esanbidez adostu behar ditu luzapenak, hasierako kontratua amaitu baino bi (2) hilabete lehenago, eta, beraz, ezingo da inolaz ere luzapenik egin isilbidez edo inplizituki.

21. KLAUSULA

BERMEAREN EPEA ETA BERMEA ITZULTZEA

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

Kontratua edo luzapenetako edozein iraungitzeko unea iristen denean eta azken dokumentua aurkeztu zenetik hilabeteko (1) epea igarotakoan, bermea itzultzeko erabakia hartuko da, betiere, ez badago bermearen bidez exekutatu beharreko erantzukizunik.

22. KLAUSULA
ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK

Kontratazio-organoak kontratu administratiboa interpretatzeko eta horren betearazpenetik sor litezkeen zalantzak argitzeko prerrogatiba dauka, betiere, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoaren 190. artikuluan zehaztutako mugen barruan, bertan xedatutako betebeharrak aintzat hartuta eta bertan adierazitako ondoreekin.

Halaber, izenpetutako kontratua aldatu ahalko du interes publikoaren mesedetan, betiere, beharrizan berrien edota aurreikusi gabeko kausen ondorioz bada, eta, hala badagokio, kontratua suntsiaraztea ere erabaki ahalko du, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoaren 190. eta 191. artikuluetan adierazitako mugen barruan eta bertan zehaztutako betebeharrak aintzat hartuta.

Kontratazio-organo eskumendunak ebatziko ditu kontratu administratiboen interpretaziotik, aldaketetatik, suntsiarazpenetik edota ondoreetatik erator litezkeen auziak.

Horien inguruko akordioekin, administrazio-bidea amaitu egingo da eta akordioak berehala bihurtuko dira betearazle.

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jurisdikzio hori arautzen duen legeari jarraikiz aurkeztu beharko da, betiere, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzekoaren arabera eskumena duen jurisdikzio-organoaren aurrean.

23. KLAUSULA
KONTRATUAREN IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUMENDUNA

Agiri hau oinarri gisa hartuta egin da kontratua, izaera administratiboa du eta kontratuan aurreikusitako guztiari dagokionez, azaroaren 8ko 9/2017 Legean, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoan nahiz administrazio publikoen kontratazioei aplikagarri zaizkien gainerako arauetan xedatutakoa bete beharko da.

Kontraesanik badago espedientean jasota dagoen dokumentazio teknikoaren eta klausula administratibo partikularren agiriaren artean, agiri honetan adierazita dagoena gailenduko da.

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

Kontratutik eratorritako auziak administrazioarekiko auzien jurisdikziopean jorratuko dira. Hala ere, auziak arbitraje bidez ebaztea adostu dezakete alderdiek, indarrean dagoen legedian xedatutakoarekin bat.

24. KLAUSULA
KONFIDENTZIALTASUN-AKORDIOA

Iragarritako kontratazioaren objektuan xedatutakoarekin bat, ez da Laudio Udalaren erantzukizunpeko datu pertsonalik erabili behar hornidurak eta lanak egiteko.

Horiek horrela, kontratu honi dagokionean, debekatua dago Laudio Udalaren erantzukizunpeko datu pertsonalak tratatu, atzitu edota ikustea.

Datu pertsonalak ustekabean edota baimenik gabe atzitzen badira, erakunde adjudikaziodunak eta haren menpeko pertsona langileek ezagut lezaketen informazioaren inguruko beharrezko isilpekotasuna eta konfidentzialtasuna gordetzeko konpromisoa dute, baita gorabehera Laudio Udalean kontratuaren ardura duen pertsonari ahal bezain laster jakinaraztekoa ere.

Horiek horrela, erakunde adjudikaziodunaren menpeko pertsona langileek betebeharra dute datuak hirugarren pertsonei ez erakutsi, transferitu, laga edo komunikatzeko, ezein modutan ere, eta betebehar horrek bere horretan jarraituko du tratamenduaren ardura duen erakundearekiko harreman juridikoa amaitutakoan ere.

Oro har, Laudio Udalak informazioaren segurtasuna babesteko eman eta aplikatu dituen neurriak bete beharko dira. Horri dagokionez, Laudio Udalak erakunde hornitzaileen kontratazioaren nahiz langileriaren kudeaketaren esparruan tratatzen ditu datuak, kontratua behar bezala bideratzen eta betearazten dela egiaztatze aldera, Sektore Publiko Kontratuei buruzko 9/2017 Legeari jarraikiz. Datu pertsonalak organo judizial eta auzitegiei, gaian eskumena duten administrazio publikoei nahiz EBAO-ri komunikatu ahalko zaizkie. Pertsona interesdunek euren datuak atzitzeko, zuzentzeko eta ezabarazteko eskubidea dute, baita euren datuen tratamendua mugatzeko eta ukatzeko ere; eskubideok erabiltzeko, komunikazio bat bidali beharko dute udaletxearen helbidera edo dpd_dbo@laudio.eus, helbide elektronikora. Halaber, horren inguruko informazio gehiago eskuratu ahalko dute www.laudio.eus webguneko gardentasunaren atarian.

25. KLAUSULA
IZAERA PERTSONALEKO DATUEN TRATAMENDUA

Izaera pertsonaleko datuen tratamendua 6. eranskinean xedatutakoari jarraikiz dago arautua, dagokion erantzukizunpeko adierazpena barne.

LAUDIO
UDALA
AYUNTAMIENTO
DE LLODIO

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

Laudio, 2023ko uztaila

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

1. ERANSKINA

ALDEZ AURRETIKO BETEBEHARRAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTATZE-DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA (A GUTUN-AZALA)

LAUDIOKO UDAL-TAILER KULTURALAK ANTOLATZEKO ZERBITZUA

Pertsona fisikoaren izen-abizenak: .....

NAN zenbakia: ..... . NANa jaulki den udalerria: …….. .

NANaren data: …….-ko ……-ren ……-a.

Bere izenean ari da edota honako enpresa ordezkatzen du: …….

Enpresa-ordezkaritza ahalorde-eskrituran jaso duen notario andrea / jaunaren izen-abizenak: ……. .

Jakinarazpenetarako helbidea: …… kalea, …….. zenbakia. Udalerria: ……. Posta Kodea: ……

Enpresaren IFZa: …… . Enpresaren Telefonoa: …… .

Enpresaren posta elektronikoa: …….

AITORTZEN DU / DECLARA

LEHENENGOA.- Laudio Udalak LAUDIOKO UDAL TAILER KULTURALAK ANTOLATZEKO ZERBITZUA emateko kontratatzailearen profilean argitaratu duen iragarkiaren berri duela.

BIGARRENA. Aztertu egin dituela eta ezagutzen dituela preskripzio teknikoen plegua nahiz klausula administratibo partikularren plegua.

HIRUGARRENA.- Halaber, ezagutzen dituela kontratazio honi aplikagarri zaizkion lege- zein arau-testu guztiak. Ondore horietarako, adierazi egiten du jarraian ageri den hitzarmen kolektiboa dela kontratuaren objektua betearaziko duten pertsona langileei aplikatu beharrekoa:

……

LAUGARRENA.- SPKL-ren 140. artikulua betetze aldera, esanbidez aitortzen du:

- Ordezkatzen duen sozietatea behar bezala eratua dagoela eta haren objektu

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

sozialaren arabera lizitaziora aurkez daitekeela.

- Aitorpena izenpetu duenak beharrezko ordezkaritza duela proposamen hau aurkezteko.
- Kontratazio honi aplikagarri zaizkion baldintza administratiboen pleguetan nahiz preskripzio teknikoen pleguetan adierazitako gaitasun- eta kaudimen-baldintza guztiak betetzen dituela kontratu honen adjudikazioa lortzeko, eta konpromisoa hartzen duela hori egiaztatzeko dokumentazioa aurkezteko Administrazioak eskatzen dionean.
- Pleguetan proposamenak aurkezteko emandako epea amaitu aurretik bete dituela gaitasunari eta kaudimenari buruzko betebeharrak.
- Ez duela kontratatzeko debekurik.

BOSGARRENA. - (50 PERTSONATIK GORAKO ENPRESEN KASUAN SOILIK) Aintzat hartzen duela martxoaren 3ko 1/2022 Legearen, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Legeari bigarren aldaketa egitekoaren 21. artikuluan xedatutako betebeharra, alegia, 50 pertsona baino gehiagoko enpresek berdintasun plan bat edukitzeko betebeharra. Berdintasun planik eduki ezean, adierazi egiten duela konpromisoa hartu duela kontratua betearazten den bitartean berdintasun plana prestatzeko. Ondore horietarako, jarraian ageri dena aitortzen dut:

	Bai / Ez
Enpresak **Berdintasun Plana** dauka	

Plana egina ez badu, enpresa honek:

	Bai / Ez
Konpromisoa hartu du **kontratua betearazten den bitartean Berdintasun Plana prestatzeko**	

Aipatutako legea betetze aldera, eta emakume eta gizonen arteko egokitasun-baldintzak egiaztatzeko, jarraian ageri den informazioa aurkeztu dela, sexuen arabera xehakatua:

-Pertsona juridikoen titulartasuna duten pertsonak eta administrazio- nahiz zuzendaritza-organoak osatzen dituzten pertsonak.

-Pertsona langileak eta euren batez besteko ordainsariak, talde profesionalen, kategoria profesionalen edo lanpostu berdinen edo balio berdinekoen arabera banatuta.

SEIGARRENA. -(BEHARREZKOA DENEAN BAINO EZ) Kontratu hau behar bezala betearazi ahal izateko, aldi baterako enpresa-elkartea eratuko dela. Horiek horrela, aitorpen honekin batera aurkeztu da elkarte hori eratzeko konpromisoaren aitorpena. Hau izango da elkartearen izendapena: ……

ZAZPIGARRENA. - (BEHARREZKOA DENEAN BAINO EZ) Atzerriko enpresa

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

izanik, esanbidez onartzen duela Laudio udalerriari dagokion forua.

Laudion, 2023ko …….k ……

Izenpea

Oharra: Dena den, aitorpen honen ordez, SPKL-aren 140. artikuluan jasota datorren kontratazio-agiri europar bakarra aurkez dezake enpresa lizitatzaileak, betiere, hirugarren eta bosgarren puntuei dagokien informazioa erantsita.

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

2. ERANSKINA

AUTOMATIKOKI ZENBATETSI DAITEZKEEN ESKAINTZETARAKO EREDUA

(B GUTUN-AZALA)

LAUDIOKO UDAL-TAILER KULTURALAK ANTOLATZEKO ZERBITZUA

Pertsona fisikoaren izen-abizenak: .....

NAN zenbakia: ..... . NANa jaulki den udalerria: …….. .

NANaren data: …….-ko ……-ren ……-a.

Bere izenean ari da edota honako enpresa ordezkatzen du: …….

Enpresa-ordezkaritza ahalorde-eskrituran jaso duen notario andrea / jaunaren izen-abizenak: ……. .

Jakinarazpenetarako helbidea: …… kalea, …….. zenbakia. Udalerria: ……. Posta Kodea: ……

Enpresaren IFZa: …… . Enpresaren Telefonoa: …… .

Enpresaren posta elektronikoa: …….

AITORTZEN DU / DECLARA

LEHENENGOA.- Laudio Udalak LAUDIOKO UDAL TAILER KULTURALAK ANTOLATZEKO ZERBITZUA emateko kontratatzailearen profilean argitaratu duen iragarkiaren berri duela.

BIGARRENA.- Aztertu egin dituela eta ezagutzen dituela preskripzio teknikoen plegua nahiz klausula administratibo partikularren plegua.

HIRUGARRENA.- Halaber, ezagutzen dituela kontratazio honi aplikagarri zaizkion lege- zein arau-testu guztiak.

LAUGARRENA.- Konpromisoa hartzen duela kontratazio honen objektu den prestazioa baldintzen pleguetan xedatutakoari jarraikiz eta eskaintzarekin batera doan dokumentazioan adierazitako baldintzetan emateko. Gutxienez, elementu hauek eduki beharko ditu eskaintzak:

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

- Jarraian ageri diren elementuak dauzkan proiektu teknikoa:

➢ Metodologia eta horren egokitzapena zerbitzuaren helburuekiko.
➢ Zerbitzura atxikitako giza baliabideak, kontratazio honen sektorean duten curriculum vitaeri, eskarmentuari nahiz kalifikazioei buruzko xehetasunak jasota eta bakoitzak beteko dituen eginkizunak nahiz aurreikusitako jardunaldiak adierazita.
➢ Jardueren behin-behineko programa (horretarako beharko diren materialak barne hartuta). Proposamenak izaera loteslea izango du, beraz, adjudikazioa burutu ostean edozein aldaketa egiteko, behar bezala arrazoitu eta justifikatu beharko da, ezingo da funtsezko aldaketa izan hasierako bertsioaren egokitasunari edota kalitateari dagokionez, eta Udalaren oniritzia beharko du.
➢ Ebaluazioa: metodologia eta adierazleak

- Hobetze-proposamenak: ordutegiak, hiruhileko iraupena izango duten tailer berriak, biztanleria-segmentu desberdinetarako proposamenak, euskararen erabilera tailerretan.

Laudion, 2023ko …….k ……

Izenpea

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

3. ERANSKINA

AUTOMATIKOKI ZENBATETSI DAITEKEEN ESKAINTZARAKO EREDUA (C GUTUN-AZALA): LAUDIOKO UDAL-TAILER KULTURALAK ANTOLATZEKO ZERBITZUA

Pertsona fisikoaren izen-abizenak: .....

NAN zenbakia: ..... . NANa jaulki den udalerria: …….. .

NANaren data: …….-ko ……-ren ……-a.

Bere izenean ari da edota honako enpresa ordezkatzen du: …….

Enpresa-ordezkaritza ahalorde-eskrituran jaso duen notario andrea / jaunaren izen-abizenak: ……. .

Jakinarazpenetarako helbidea: …… kalea, …….. zenbakia. Udalerria: ……. Posta Kodea: ……

Enpresaren IFZa: …… . Enpresaren Telefonoa: …… .

Enpresaren posta elektronikoa: …….

AITORTZEN DU

LEHENENGOA.- Laudio Udalak LAUDIOKO UDAL TAILER KULTURALAK ANTOLATZEKO ZERBITZUA emateko kontratatzailearen profilean argitaratu duen iragarkiaren berri duela.

BIGARRENA.- Aztertu egin dituela eta ezagutzen dituela preskripzio teknikoen plegua nahiz klausula administratibo partikularren plegua.

HIRUGARRENA.- Halaber, ezagutzen dituela kontratazio honi aplikagarri zaizkion lege- zein arau-testu guztiak.

LAUGARRENA.- Konpromisoa hartu duela aipatutako zerbitzua baldintzen pleguetan xedatutakoaren arabera emateko, jarraian aipatuko diren zenbatekoen truke.

Prezioa:

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

URTEA	OINARRIA (€)	%21 BEZ (€)	GUZTIRA (€)
1			
1. luzapena 1era prórroga			
GUZTIRA TOTAL			

*Zenbatekoa berbera izan beharko da urte eta luzapen guztietarako

GASTUAREN BANAKETA

Gastuaren banaketa ondo bereizitako hiru alderdiren arabera:

1. Langileria gastuak. Halaber, nahitaezkoa da Arabako hezkuntza-aisialdiko eta gizarte- nahiz kultura-animazioko enpresen hitzarmen kolektiboa aplikatzea, baita hori hedatu edo ordezten duen beste edozein betebeharren dokumentu ere.

2. Kudeaketarako gastuak; atal honetan sartuko dira enpresaren etekinak.

3. Jardueretarako gastuak.

a)

KONTZEPTUA	KOSTUA (€)	EHUNEKOA
Langileria gastuak		
Kudeaketa gastuak		
Jardueren gastuak		
GUZTIRA		

Prezio horietan sartzen dira edozein fiskal guztietako kontzeptu, zerga, gastu, tasa eta erabakimen guztiak, baita BEZ eta kontratistaren etekin industriala ere.

b)

KONTZEPTUA	KOSTUA BEZ BARIK (€)	KOSTUA BEZ BARNE
Prezioa orduko / tailerreko		

Oharra: ez da onartuko koadro hauek aurkezten ez dituen eskaintzarik / *Nota: se excluirá toda oferta que no presente estos cuadros.*

LAUDIO
UDALA
AYUNTAMIENTO
DE LLODIO

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

Laudion, 2023ko …….k ……

Izenpea

LAUDIO
UDALA
AYUNTAMIENTO
DE LLODIO

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

4. ERANSKINA

LAUDIOKO UDAL-TAILER KULTURALAK ANTOLATZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK

Proposamenak **balioesteko** eta eskaintzarik onuragarria zein den zehazteko, jarraian ageri diren adjudikazio-irizpide hauek aplikatuko dira, eta, gehienez ere, 200 puntu lortu ahalko dira:

1.- Formula matematikoak aplikatuta edo matematikoki balioetsi ezin diren irizpideak (B gutun-azala) (65 puntu gehienez):

a) Proposamenak bere osotasunean duen originaltasuna, bideragarritasuna eta koherentzia, baita proiektuaren helburu orokorrekiko egokitasuna eta lotura (15 puntu gehienez).
b) Euskararen erabilera, kultura-dibertsitatea eta genero-berdintasuna sustatzeko proposamen zehatzak (12 puntu gehienez).
c) Belaunaldi arteko eskaintza adin guztietako pertsonentzat (10 puntu gehienez).
d) Giza baliabideak. Atal honetan balioetsiko dira proposatutako giza baliabideen moldaketa, profila, esperientzia eta egokitasuna (10 puntu gehienez).
e) Kontratuaren objektuarekin erlazionatutako hobekuntza-proposamenak, eskaintza lizitatzaileek proposatutakoak (8 puntu gehienez).
f) Aurkeztutako proposamenean genero-ikuspegia txertatzea edota martxoaren 16ko 1/2023 Legearen, emakume eta gizonen arteko berdintasuna nahiz emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzak lortzekoaren 5. artikuluan jasotako aintzatespena, hau da, emakume eta gizonen arteko berdintasunerako erakunde laguntzaile izatearen aintzatespena (10 puntu gehienez).

Formula matematikoak aplikatuta balioetsi ezin diren bost irizpide horiek balioesteko, enpresek "***Kudeaketarako eta programaziorako proposamen teknikoa***" aurkeztu beharko dute, zeinetan alderdi hauek egongo baitira jasota:

- Metodologia eta eskaintzaren egokitzapena zerbitzuaren helburuekiko. Bereziki zainduko dira euskararen erabilera eta presentzia, aisialdi osasungarria, berdintasuna eta parte hartuko duten pertsonen arteko harremanak.
- Zerbitzura atxikitako giza baliabideak, kontratazio honen sektorean duten curriculum vitaeri, eskarmentuari nahiz kualifikazioei buruzko xehetasunak jasota eta bakoitzak beteko dituen eginkizunak nahiz aurreikusitako jardunaldiak adierazita. Atal honetan, nahitaez eta esanbidez jaso beharko da Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak emandako ziurtagiriak, egiaztatzeko pertsona langileetako ezeinek ez duela jarduera egitearekin bateraezina den adingabeekiko zigor-aurrekaririk.

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

- Jardueren behin-behineko programa (horretarako beharko diren materialak barne hartuta).
- Ebaluazioa: metodologia eta adierazleak.
- Hobetze-proposamenak: Zerbitzua jaiegunetan ere emateko aukera, teknologia berrien erabilera, espazioaren egokitzapena, ordutegia hedatzea…

Proposamen teknikoak ezingo du 25 orri baino gehiago eduki (aurkibidea barne hartuta), orrialde bakarrean idatziak eta zenbakituak, 12 neurriko "Times New Roman" letrakeran, 1eko lerroartearekin, eta paperean nahiz formatu digitalean (USB) aurkeztu beharko da. Aipatutako luzera gainditzen duten eskaintzak ez dira balioetsiko.

Zerbitzuaren prestazioak beharrezko kalitatea duela ziurtatze aldera, lizitazio-prozesutik kanpo geratuko dira atal honetako irizpideei dagokien balioespenean 25 puntu lortzera iristen ez diren eskaintzak.

2.- Formula matematikoak aplikatuta edo matematikoki balioetsi daitezkeen irizpideak (C gutun-azala) (135 puntu gehienez):

a) Erakunde lizitatzaileak eskainitako urte bakarrerako preziorik onena: 100 puntu gehienez. Enpresa lizitatzaile guztiek eskainitako beherapenen arabera emango da puntuazioa. Horretarako, preziorik txikiena eskaini duen erakundeari emango zaio puntuazio altuena, eta 0 puntu emango zaizkio lizitazioaren oinarrizko aurrekontua berdintzen duen eskaintzari. Gainerakoei emango zaien puntuazioa proportzionalki kalkulatuko da, formula hau aplikatuta:

$$100 \times \frac{(PBL - O_E)}{(PBL - O_B)}$$

Hauek dira formularen ikurrak:

LOA: lizitazioaren oinarrizko aurrekontua

O_A: aztertutako eskaintzaren zenbatekoa

O_B: eskaintza baxuenaren zenbatekoa

b) Gastuaren banaketa hiru alderdi hauen arabera: 35 puntu.

1. Langileria-gastuak: 15 puntu emango zaio guztirako zenbatekoaren ehunekorik handiena horretarako bideratuko duen eskaintzari. Gainerako eskaintzak proportzionalki balioetsiko dira. Halaber, nahitaezkoa da Arabako hezkuntza-aisialdiko eta gizarte- nahiz kultura-animazioko enpresen hitzarmen kolektiboa aplikatzea, baita hori hedatu edo ordezten duen beste edozein betebeharren dokumentu ere.

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

2. Kudeaketarako gastuak, enpresaren etekina barne hartuta: 10 puntu emango zaio guztirako zenbatekoaren ehunekorik handiena horretarako bideratuko duen eskaintzari. Gainerako eskaintzak proportzionalki balioetsiko dira.
3. Jardueretarako gastuak: 10 puntu emango zaio guztirako zenbatekoaren ehunekorik handiena horretarako bideratuko duen eskaintzari. Gainerako eskaintzak proportzionalki balioetsiko dira.

NEURRIZ KANPOKO MERKATZEA

Kontratazio honetan, proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko bi irizpide bete beharko dira:

a) Adjudikazioaren lehenengo fasean (automatikoki balioetsi ezin diren irizpideak) lor daitezkeen 65 puntuetatik 33 puntu lortu beharko da gutxienez.
b) Bigarren fasean (irizpide automatikoak): urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 85. artikulua aplikatuko da.

BERDINKETAK HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Eskaintza bi edo gehiagoren arteko berdinketa gertatzen bada, hauek izango dira berdinketa hausteko irizpideak, lehentasunaren araberako hurrenkeran:

a.- Adjudikazioan lehentasuna izango du enpresa barruan berdintasun plana duela egiaztatzen duen enpresaren proposamenak.

b.- Horrela ere ez bada berdinketa hautsi, adjudikazioan lehentasuna izango du eskaintzak aurkezteko epea agortzen den unean bere langileen ehuneko bi desgaitasunen bat duela egiaztatzen duen enpresaren proposamenak. Hori egiaztatzeko, lan-kontratuak eta Gizarte Segurantzaren kotizazio-dokumentuak aurkeztu beharko dira, hala dagokionean.

c.- Adierazitako irizpideak aplikatuta ere ez bada berdinketa hautsi, adjudikazioan lehentasuna izango du desgaitasuna duten pertsona langile finko gehien dituen enpresa edo erakunde lizitatzailearen proposamenak.

d.- Hala eta guztiz ere, aurreko inguruabarrak kontuan hartu ostean berdinketak bere horretan jarraitzen badu, zozketa bidez erabakiko da adjudikazio-proposamena.

LAUDIO
UDALA
AYUNTAMIENTO
DE LLODIO

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

5. ERANSKINA

PERTSONA LANGILEEN SUBROGAZIOA ONARTZEKO EREDUA

Pertsona fisikoaren izen-abizenak: .....

NAN zenbakia: ..... . NANa jaulki den udalerria: …….. .

NANaren data: …….-ko ……-ren ……-a.

Bere izenean ari da edota honako enpresa ordezkatzen du: …….

Enpresa-ordezkaritza ahalorde-eskrituran jaso duen notario andrea / jaunaren izen-abizenak: ……. .

Jakinarazpenetarako helbidea: …… kalea, …….. zenbakia. Udalerria: ……. Posta Kodea: ……

Enpresaren IFZa: …… . Enpresaren Telefonoa: …… .

Enpresaren posta elektronikoa: …….

AITORTZEN DU

- Ezaguna duela administrazio-kontratazio hau arautzen duten baldintza administratiboen nahiz preskripzio teknikoen pleguen eduki osoa.
- Dokumentazio horri jarraikiz, konpromisoa hartu duela gaur egun zerbitzua ematen duten pertsona langileak subrogatzeko, egun dituzten baldintza berberetan eta osoki aintzatetsita egungo adjudikaziodunarekin metatu duten antzinatasuna.

Laudion, 2018ko …….k ……

Izenpea

LAUDIO
UDALA
AYUNTAMIENTO
DE LLODIO

Herriko Plaza
01400 **Laudio**/Llodio
(Araba/Álava)
www.laudio.eus
IFZ/NIF P0103800I

6. ERANSKINA

DATUEN BABESARI BURUZKO ARAUDIA

Pertsona fisikoaren izen-abizenak: .....

NAN zenbakia: ..... . NANa jaulki den udalerria: …….. .

NANaren data: …….-ko ……-ren ……-a.

Bere izenean ari da edota honako enpresa ordezkatzen du: …….

Enpresa-ordezkaritza ahalorde-eskrituran jaso duen notario andrea / jaunaren izen-abizenak: ……. .

Jakinarazpenetarako helbidea: …… kalea, …….. zenbakia. Udalerria: ……. Posta Kodea: ……

Enpresaren IFZa: …… . Enpresaren Telefonoa: …… .

Enpresaren posta elektronikoa: …….

DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

